



EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Menderakuntza bidezko perpausak -III-

- >Erlatibozkoak
- >Zehar-galderak

NOLA ERABILI

Menderakuntza bidezko perpausak -III- erlatibozkoak/ zehar-galderak

Esku artean daukazun bideoan bi atal nagusi bereiz daitezke: erlatibozko perpausak eta zehar- galderak.

-Erlatibozkoak 03:09

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, erlatibozko perpausei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

-DRAMATIKO TXIKIAK: -n

-Gidoiak irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoiak berridatzi, erlatibozko forma gordeta gainerakoa aldatuz.

Esaterako,

5

Gidoiak zera dio:

LOREA.- Jertse gorria duen gizona Bilbokoa da.

MIKEL.- Bai. Haurtxoa besoetan daraman emakumearekin etorri da.

LOREA.- Bai. Sarreran berri ona eman digun emakumearekin.

MIKEL.- Euren atzean presaka dabilen neska ez al da Olatz?

Honela berridatzi:

LOREA.- Luma eskuan duen gaztea idazkaria da.

MIKEL.- Bai. Zorro itsusia daraman neskaren laguna da.

LOREA.- Ez. Jon gaixorik dagoela esan digun neskaren laguna da.

MIKEL.- Nor da, bada, zorro itsusiarekin dabilen neska?

-ATAL DRAMATIKO LUZEA: LANBIDE ZOPA

-Bost ikasleko taldeak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Definizioak bilatu eta idatzi. Koadroko hitzen definizioak bilatu eta idatzi, erlatibozko perpausak erabiliz.

bezpera	bekadun	erdarakada
dolare	factotum	geografia

EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

6. kapitulua

Menderakuntza bidezko perpausak -III-

erlatibozkoak

Mendeko perpaus gehienak perpaus nagusiko aditzaren mende egoten dira; erlatibozko perpausak, ordea, izen-sintagma baten mende egoten dira. Beraz, izenlagunaren funtzioa betetzen dute.

Sintagma bat izenlagun bihurtu nahi badugu, *-ko* edo *-ren* atzizkia erantsi baino ez diegu egin behar.

- | | |
|-----------------|---------------------------|
| MIKEL. - | Leihoa ireki dut. |
| OLATZ. - | Zer leiho? |
| MIKEL. - | Gelako leihoa. |
| OLATZ. - | Zure gelan dagoen leihoa? |
| MIKEL. - | Bai, nire gelako leihoa. |

Gelako eta gelan dagoen sintagmek
funtzio bera betetzen dute:
leihoa izena zehaztea.

Beraz, erlatibozko perpausak izenlagun gisa erabiltzen dira,
eta atzean dagoen izen-sintagmari *ondokoa* esaten zaio.

-n

Horixe dugu erlatibozko perpausak egiteko gehien erabiltzen den menderagailua. Aditz laguntzaileari edo trinkoari lotzen zaio zuzenean. Erlatibozko perpausok izenlagunaren funtzioa betetzen dutenez, izenaren aurrean jarri behar dira.

LOREA. -	Jertse gorria duen gizona Bilbokoa da.
MIKEL. -	Bai. Haurtxoa besoetan daraman emakumearekin etorri da.
LOREA. -	Bai. Sarreran berri ona eman digun emakumearekin.
MIKEL. -	Euren atzean presaka dabilen neska ez al da Olatz?
LOREA. -	Bai, bera da. Musikarien instrumentuak antolatzen dituen gazteari deika ari zaio.

*(erlatibozkoa)N gizona (erlatibozkoa)N emakumearekin
(erlatibozkoa)N neska. (erlatibozkoa)N gazteari*

3.

Ikusi ahal izan duzuen bezala, izen-sintagma deklinatu egin daiteke. Maiz, nongo eta noren kasuekin gertatzen den bezala, ondokoa ezabatu egiten da. Hala-koetan ondokoari dagozkion kasu-marka guztiak -n menderagailuari eransten zaizkio.

LOREA. -	Jertse gorria duena Bilbokoa da.
MIKEL. -	Bai. Haurtxoa besoetan daramanarekin etorri da.
LOREA. -	Bai. Sarreran berri ona eman digunarekin.
MIKEL. -	Euren atzean presaka dabilena ez al da Olatz?
LOREA. -	Bai, bera da. Musikarien instrumentuak antolatzen dituenari deika ari zaio.

*(erlatibozkoa)NA (erlatibozkoa)NAREKIN
(erlatibozkoa)NA (erlatibozkoa)NARI*

Erne ibili, baina, menderagailu honekin; izan ere, perpaus osagarriek ere menderagailu bera erabiltzen dute.

- LOREA.-** Olatzek prestatu duen egitaraua daukat.
MIKEL.- Seguru zaude?
LOREA.- Bai, seguru nago. Zergatik?
MIKEL.- Bada ni ez nago oso seguru; egitarau hau Anderrek prestatu duen susmoa daukat.
LOREA.- Anderrek?
MIKEL.- Bai, atzo Olatz eta Ander auzoko kafetegian ikusi nituen paperez inguratuta, eta...
LOREA.- Orain ulertzen dut.

Olatzek prestatu duen egitaraua daukat.

Olatzek egitaraua prestatu du. Loreak egitaraua dauka.
Bi perpausetako egitaraua bat bera da.
Olatzek prestatu duen egitaraua, alegia.

Bada ni ez nago oso seguru;
egitarau hau Anderrek prestatu duen susmoa daukat.

Anderrek prestatu du. Mikelek susmoa dauka.
Horrelakoetan ezin dugu esan
Mikelek daukan susmoa Anderrek prestatu duenik;
hau da, bigarren perpausoko objektua, *susmoa*,
ez da lehenengo perpausan agertzen.
Kasu horretan, *Anderrek prestatu du* perpausa,
susmo sintagmaren osagarria da.
Perpaus osagarria da, beraz.

Erlatibozko perpausetan *-n* menderagailua perpausaren amaieran jartzen da, izen-sintagmaren aurrean. Gainerako osagai guztiak aurrera eramaten dira. Beraz, ezezkoetan, aditz nagusia eta beste osagaiak aurrean jartzen dira.

LANBIDE ZOPA

- OLATZ.-** Zer ordu da?
- LOREA.-** Bostak.
- OLATZ.-** Bostak? Gure Mikel, beti bezala, berandu.
- LOREA.-** Bai, bost minutu itxarongo dugu; eta, etorri ez bada, hasi egingo gara.
- MIKEL.-** Aupa, neskak! Beheko kalean udalak jarri **duen** eskultura ikusi dut. Zuek, ikusi al duzue?
- OLATZ.-** Ez, nik ez. Goiko kaletik etorri naiz.
- LOREA.-** Nik ere ez dut ikusi. Non jarri dute, ba?
- MIKEL.-** Beheko kalean. Iturria **zeukan** biribilgunearen erdi-erdian.
- LOREA.-** Okindegi aurreko biribilgunean?
- MIKEL.-** Bai. Gero joango gara ikus³tera. Has gaitezen lanean.
- MIKEL.-** Hau al da ikusi behar **dugun** bideo-zinta?
- LOREA.-** Bai, horixe bera da. Sartu.
-
- MIKEL(off):** Argazkilaria. Argazkiak egiten **dituena**, eta bereziki bizibidetzat argazkilaritza **duena**.
-
- OLATZ(off):** Pentsalaria. Pentsatzen **duena**. Ideien munduan **diharduen** eta arazo orokorrez gogo-ekarpenak egiten **dituen** pertsona; filosofoa.
-
- LOREA(off)::** Kazetaria. Komunikabide batean, bereziki albiste zerbitzuetan **diharduen** profesionala.
-
- MIKEL(off)::** Aktorea. Antzerki, zinema, irrati edo telebistako antzezlan batean pertsonaietako bat errepresentatzen **duena**.
-

OLATZ(off): Kantaria. Kantatzen duena; bereziki horretan aritzen den pertsona.

LOREA(off):: Pilotaria. Pilota-jokoan lehiatzen den kirolaria.

LOREA.- Jarraian, beste sei lanbide ikusiko ditugu. Oraingoan lanbideari dagokion irudia pixkanaka garbituko da; zortzi segundo izango dituzue irudia zeharo garbitu arte. Ea nork asmatzen duen lehenengo lanbidea zein den. Badakizue, zortzi segundo.

MIKEL(off):: Etxegintzan diharduen profesionala. Hormak eta horrelakoak egiten dituen langilea. Nor da? **Igeltseroa.**

OLATZ(off):: Ogibidez musikan diharduen pertsona. Musika jotzen duen pertsona. Nor da? **Musikaria.**

LOREA(off):: Norbaiti eskutitzak idazten dizkion eta bulego-arazoetan laguntzen dion enplegatua. Nor da? **Idazkaria**

OLATZ(off):: Ikerketa pribatuak egiten dituen pertsona. Zenbait poliziatan ezkutuko ikerketak egiten dituen pertsona. Nor da?

Detektibea

LOREA(off):: Ikasten ari dena. Bereziki ikastetxe batean ikasten duena. Nor da? **Ikaslea.**

OLATZ.- Ikaslea? Bai? Lanbidea al da?

LOREA.- Lanbidea bada ...

Lanbidea ez bada ...

OLATZ.- Nik ez nuke sartuko ikaslea. Zalantzazkoa da.

LOREA.- Ados nago zurekin. Nik ere kendu egingo nuke. Egia esan, hamaika lanbide daukagu.

- OLATZ.-** Hori kenduta, konforme nago egindako lanarekin. Zuek?
- LOREA.-** Ni ere bai.
- MIKEL.-** Ni ere bai. Ai, zuek, galdera bat, bideoan agertzen den pilotariaren irudia kartera galdu nuen egun hartan grabatu genuena da, ezta?
- LOREA.-** Bai, Mikel, bai. Sekula ez dut ahaztuko Mendizorroztako frontoietara joan ginen egun beltz hura. Hasteko berandu iritsi zinen; gero autoaren gurpila zulatu zitzaizun, gero...
- MIKEL.-** Aski da, aski da; ez dut gogoratu nahi zoritxarreko egun hura. Utz dezagun gaia. Horiek guztiak aspaldian gertatutako kontuak dira.
- LOREA.-** Aurkitu al zenuen galdutako kartera hura? Ez dut gogoratzen.
- MIKEL.-** Bai zera! Auskalo non egongo den.
- OLATZ.-** Kartera galdu zenuen hartan ni bulegoan geratu nintzen, zuk emandako fakturak ordeñatzen.

-tako -riko

Hori kenduta, konforme nago egindako lanarekin. Zuek?
Horiek guztiak aspaldian gertatutako kontuak dira.

Zenbaitetan adizki jokatu gabeaz baliatzen gara erlatiboa egiteko.
Halakoetan partizipio adberbialari *-ko* atzizkia erantsiz lortutako
formak erabiltzen ditugu.

Eta, bistan denez, ekintza burutuak adierazteko erabiltzen ditugu.

Erlatibozko zenbait esapide

Orain arte ikusitakoez gain, euskaraz badira erlatiboaren pareko diren beste zenbait baliabide. Batzuetan alborakuntzaz baliatzen gara. Halakoetan, maiz galdetzailea eta erakuslea erabiltzen dira erlatiboaren ordezt.

Esapide hauek lantzeko jolas bat proposatuko dizuet. Gure lagunek: Mikelek, Olatzek eta Loreak esapideak esango dituzte eta zuek esapideak idatziz jasoko dituzue; gero, euren esanahiari buruz mintzatzeko.

Nork apurtu, harek konpon dezala.

Eguzkia nora, zapiak hara.

Zer pentsatu, hura egin behar da.

Nolako zura, halako ezpala.

Non hasi, hantxe bukatu behar da.

Zer ikusi, hura ikasi.

Nolako den ama, halakoxea izaten da alaba ere.

Hartu al dituzue? Bai? Beste batzuetan, erlatiboaren ordezt, aposizioan doan sintagma bat erabili ohi da. Halakoetan, maiz *bera* izenordain indartua erabili ohi da.

Atzoko mutila, **oso ederra bera**, bisitan etorri zait.

Patxiren ikasleak, **langile finak eurak**, Erromara joan dira.

Ramones-en musika, **oso azkarra bera**, tiki guztietan entzuten da.

Euskara mintzatuan, askotan, erlatiboaren ordezt, adierazi nahi den izakia edo gaia aurretik zehazten da galdera baten bitartez, eta gero erakusle batez egiten zaio erreferentzia zehaztutako gai edo izaki horri.

LOREA. - Ikusten duzue haurtxo hau? **Hauxe** da nire iloba Jokin.

OLATZ. - Ea, utzi ikusten. Ikusten duzu, Mikel? Ba, **horrelako** bat nahi dut nik ere.

MIKEL. - Ikusten al duzue erloju hori? Ba, nik ere gauza bera esaten dut, berandu dela eta banoala, alegia.